




HEZKUNTZA SOZIOLINGUISTIKOA: ESPERIENTZIEN PARTEKATZEA ETA AURRERA BEGIRAKOA

**Hizkuntza asertibitatea,
kontzientzia linguistikoa eta
hizkuntza portaera
ekologikoak lantzeko proiektu
integrala**





1. FASEA

- 2011ko Izaskun Arrue Ikerketako datuak, LH4 eta DBH2
- 2014an, DBH4ko ikasgeletan eskuhartze saioak: *Gaztelaniaren abantailak*



ZARAUZKO UDALA

IKASITAKOAK

- Hizkuntza(z hitz egitea) astuna – bizipena(z hitz egitea) bizia
- Iritzi aniztasuna
- Kode bateratua euskalduntasunaren mailaketan
- Gizarteko diskurtsoarekin bat / lekuko diskurtsoarekin bat
- Erantzukizun sentimendua vs ahaleginaren nagia

GURE ERRONKA:

- Pentsatzen eta sentitzen dutena ulertzea eta onartzea
- Beraiekin hitz egiten ikastea

ONDORIOAK

- Gaiari buruz hitz egin nahi dute, iritzia eman nahi dute
- Ezin onartu, beren burua zuritu → epaituak sentitzen dira, epaitu egiten dute
- Deserosotasuna (norbera) ≠ ezina (testuingurua)
- Aurreiritziak dituzte
- Hizkuntzak sortzen dizkien emozioak lantzeko tarteak (bizipenei lekua + epairik ez) behar dugu

IKUSI ETA ENTZUDAKO EKIN PROPOSAMEN BERRI BATEN BEHARRA

2. FASEA

- hizkuntzari buruzko aurreiritziak, hizkuntza-portaerak eta deserosotasunak lantzeko espazio kolektiboak
- 2014an, DBH4ko ikasgeletan eskuhartze saioak: *Soziolinguistika saioak*
 - 4na saio ikasgelako
 - Elkarrizketa dialogikoak
 - Saio ludikoak

IKASITAKOAK

Hausnarketa
gazteekin
SOZIOLINGUISTIKA
SAIOAK

- Gizarteko diskurtsoarekin (+aurreiritziekin) bat
- Erantzukizun sentimendua vs ahaleginaren nagia (+ezina)
- Euskara irakaslearen ardura da
- Irakasleen diskurtsoa gazteen portaerarekiko
- Irakasleen inplikazioa
- Normalkuntzako arduradunen “bakardadea”
- Kanpo dinamizatzaileak eskertu

GURE ERRONKA:

- Irakasle guztiak inplikatzea
- Gaia ikasgai guztietan integratzea
- Edukia eta metodologiak

ONDORIOAK

- Hilabeteko lanketa ez da nahikoa; urte osoko zirimiria behar da
- Identitate linguistikoa sendotzeko DBH osora
- Saioen inpaktuak ikasleengan bakarrik izan du eragina
- Ikastetxe osoak heldu behar dio gaiari
- Irakasleen portaera eta diskurtsoak lantzeko beharra
- Interbentzio eredu bateratuak

IKUSI ETA ENTZUDAKOEKIN PROPOSAMEN BERRI BATEN BEHARRA

3. FASEA

- Xede taldeak: ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak
- Hezkuntza-proiektuak ikasturte osoan, ikasgai anitzetatik eta ebaluagarriak
- 2021ean, eragileen arteko norabide eta eragin-esparru partekatua

ZARAUZ ELEKA

ELE DA OPARITU DIDATEN LETRA

Ele da oparitu didaten letra. Letra, elerekin hasten da. Literatura, liburu, luma edo lirika ere elerekin hasten dira. Nobela eta idazle hitzek erdialdean dute L letra. Erresioñol, odol edo guardasol bezalako hitz politek atzealdean daramate elea.

Ele da oparitu didaten letra, eta elek, letra bat izateaz gainera, esan nahi du hitza ere. Elezaku mihiluze horrek ele asko eta letxe gutxi, esaten dugu. Eta elek esan nahi du hizkuntza ere. Elebakarra esaten dugu; elebidunak esaten dugu; eleantzak ere esaten dugu. Euskaldun gehien-gehienok elebidunak gara, baina euskara da gure elea.

Ele da oparitu didaten hitza. Eta eleka ibiltzea deitzen zaio hitzekin jolasteari. Ni ere eleka nabil ele letrarekin. Liluratuta nago. Iaketuta nago euskararekin, nire lanak euskara du lanabes, euskara lantzea, lurberritzea, leuntzea eta laztantzea dut lanbide, lanturik eta lotsarik gabe eta libre...

Ele da oparitu didaten letra, eta ele bat –hizkuntza bat– lorpen sozial bat da, elkar lagundurik eta elkarrekin lan eginez lantzen den errealitate bat. Baina errealitate horrek euskal hiztunon elkartasuna eskatzen du. Letek zerbitzuko lana deitzen zion euskalgintzari, lana eta zerbitzua lotuz.

Oparitu didaten letra, ele, daramate lagun eta entzule hitzek ere. Lagun entzuleok, oparitu didaten letra eder hau eta gainerako guztiak ez dira nireak, guztionak baizik.

Anjel Lertxundi

Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldia

Zarauzen, 2018ko apirilaren 22an



[XIRRIKITUTIK](#)

(DBH 1)



[ELEANITZA NAIZ](#)

[ETA HARRO NAGO](#)

(DBH 2)



[ISILARAZITAKO](#)

[HITZAK](#)

(DBH 3)



[HIZKUNTZA](#)

[PORTAERA](#)

[EKOLOGIKOAK](#) (DBH

4)

ZARAUZ ELEKA
<https://sites.google.com/view/zarautz-eleka>

Talde eragilea

IKASITAKOAK

Elkarlana
*PROIEKTU
INTEGRALA*


- Gazteen testuinguruan eragin
- Elkarlanaren balioa: udaleko hainbat departamentu, berritzegunea, ikastetxeak, kanpo aholkulariak, herritarrak
- Sortze prozesuak eragina kontzientzian
- Elkarlanak eta jabetzak eragina atxikimenduan
- Eskola curriculumean txertatzeak eragina modu sistematizatuan eta irakasleen arteko antolaketan
- Erronka bateratuak, berrikuntza-inertziak, motibazioa areagotzea
- Hizkuntza ez da gai paralelo bat → ikuspegi anitzak
- Erritmoak errespetatu
- Berrikuntzarako sinergiak sortu

GURE ERRONKA:


- Gai identitarioen lanketa orokorra
- Irakasle eta beste parte hartzaileen ahalduntzea

ONDORIOAK

- Gakoa: lan eta berrikuntza inertziak
- Ikuspegi zabala izan eta elikatzea
- Elkarlana → ikasturteko helburuak /ikasturtero
- Lidergo partekatua – rol osagarriak
- Formazio beharra
- Informazio zabalkundea → herri ikuspegia



**SISTEMA
SAREA**



KOLEKTIBOA



GAKOAK

- Herriko apostua → elkarlana, bakoitza bere lekutik
- Ekosistemaren aldaketa
- Zer landu? Nola? Norekin?
- Balioen lanketa, pertsonan integratua
- Pertsonaren akonpainamendua



*sinesten duzulako hainbat gauza arinek
mugi dezaketela handi bat*

“Isla” Anari

Mila esker

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala



ainhoa.lasa@emun.eus